

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA

Gure produktua bezeroengana helarazteko, hainbat kanal erabiliko ditugu, bai komunikazioari dagokionez bai banaketari dagokionez. Kanal hauek funtsezkoak dira gure balio-proposamena bezeroei ezagutarazteko eta proiektua merkatura iristeko. Bezeroarekiko harremana ez da salmentara mugatzen, baizik eta prozesu osoa hartzen du barne.

Lehenik eta behin, komunikazio-kanalak erabiliko ditugu gure produktua ezagutarazteko. Kanal nagusia Internet izango da, bereziki sare sozialak (Instagram, TikTok eta antzekoak), non produktuaren erabilera erakutsiko den modu bisualean. Bertan azalduko da nola hozten duen edaria pajitak izotzik gabe, eta zein diren bere abantaila nagusiak. Gainera, webgune sinple bat sortuko litzateke, produktuaren informazio guztiarekin eta erosketa egiteko aukerarekin.

Komunikazio-kanal hauen bidez bezeroak bost faseak igaroko ditu. Lehenengo fasea pertzepzioa da, non bezeroak produktua ezagutzen duen. Ondoren, ebaluazioan, bezeroak produktua beste alternatibekin alderatzen du. Hirugarren fasea erosketa da, online dendaren bidez egingo litzatekeena nagusiki. Laugarren fasean, entregan, produktua bezeroaren etxera bidaltzen da. Azkenik, salmenta ondorengoa lantzeko, bezeroarentzako arreta eskainiko da email edo sare sozialen bidez.

Banaketari dagokionez, banaketa-kanal nagusia posta bidezkoa izango da, garraio-enpresen bitartez. Horrela, produktua modu eroso eta seguruan iritsiko da bezeroengana. Hasieran ez da denda fisikorik aurreikusten, kostuak murrizteko eta online salmenta lehenesteko. Hala ere, etorkizunean aukera egon daiteke produktuaren presentzia izateko ekitaldi edo azoka berezietan.

Salmenta-kanala, beraz, batez ere online salmenta zuzena izango da, horrek kontrol handiagoa ematen duelako bai prezioan bai bezeroarekiko harremanean. Gainera, kanal honek aukera ematen du bezeroen iritziak jasotzeko eta produktuaren hobekuntzak egiteko.

Laburbilduz, komunikazio eta banaketa kanal egokiak aukeratuz, gure produktua bezeroengana modu eraginkorrean iritsiko da. Kanal hauek ondo definituta egotea funtsezkoa da proiektuaren arrakasta bermatzeko.